

Tolosaldeako osasungintza: %100 publikoa, Asuncioneko langileekin eta zerbitzu guztiekin!

Urte luzez Tolosaldean egin diren mobilizazio eta borrokaren ondorioz, eskualdeak ospital publikoa izateren erabakia hartzea lortu zen iazko urte hasieran. Lehen pausua beraz ematea lortu da.

Tolosako udalak ospitalearen kokalekuaren proposamena aurkeztu berri du, lurreamendiko kamioien parkingean antza. Lehen pausuak hasi dira ematen baina oraindik bide luzea dago egiteko eta bide horretan, ospitale publikoak izan beharko dituen ezinbesteko ezaugarriak jarri nahi ditugu mahai gainean:

Zer ospitale eredu izango den. Eusko Jaurlaritzaren egiten ari den plan funtzionalean oraindik ez dugu inolako informaziorik jaso, zer nolako ospitalea izango den, zer zerbitzu izango dituen... Guztiz kezkarria da Tolosako udalak honetan eskumenik ez duela esatean, zer ospitale eredu izango dugun ez jakitea. Izan ere, Olatz Peon alkate duen Tolosako udalak, ospitale *publiko baten alde egiteko tresnak badituela pentsatzen dugu, borondate politikoa baino ez da behar. Hainbeste urteetan ospital publikoa eskatu duten langile eta herritarrak, behingoz, beste eskualdeetako ospitaleen ezaugarri berberak dituen ospitala Tolosaldean izateko eskubidea dute.*

Asuncioneko langileak barruan izango dituen ospitalea. Azken hamarkadetan La Asuncion klinikako langileak izan dira Tolosaldeko herritarrak hartatu dituztenak, zailtasun ugariaren aurrean, profesionaltasunez eta arduraz lana eginez. Eskualdeko ospital baten funtzioa bete dugu, nahiz eta funtzio hori betetzeko, beste eskualdeetako ospital publikoak baino langile gutxiago izan arren baldintza okerragoetan. Gainera gure lanak, nahiz eta %95 a baino gehiago osakidetzako pazienteak ditugun, ez dugu aitorpenik jasotzen jaurlaritzatik.

Tolosaldeko osasun arretaren egoera eskasa, enpresa pribatu batek eskualdeko osasun arreta kudeatzearen ondorioa da, eta hau, erabaki politiko baten ondorio izan zen.

- *Beraz, La Asuncion klinikako langileak SUBROGATUAK izatea eskatzen dugu.*
- *Olatz Peon alkate duen udalari ardura bere gain hartu dezan eskatzen diogu.*
- *La Asuncion klinikako langileak ez dituen ospital publikorik ez dugu onartuko.*

Ospitalea %100ean publiko izatea nahi dugu, alegia, emango dituen zerbitzu guztiak izan beharko dute publikoak.

Bidea egiten jarraituko dugu, %100 publikoa, zerbitzu guztiak dituen eredua eta Asuncioneko langileak barruan izango dituen ospitalea lortu arte. Udalak mahai gainean jarri ditugun gaiak sahiestu ez ditzala eskatzen dugu eta la Asuncioneko langileek eta Tolosaldeako herritarren nahiaren aldeko apostua egin dezala.

Hau lortzeko mobilizatzen jarraituko dugu!

